

6/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK IRAILAREN
11n EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea.*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea.*

MAHAIKIDEAK:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea.*

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea.*

Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea.*

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea.*

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua.*

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea.*

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua.*

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea.*

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea.*

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea.*

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea.*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua.*

Ezin etorria adierazi dute:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea.*

Koldo Leoz Garcíandia jn., *Lizarrako alkatea.*

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea.*

Eneko Larrarte Huguete jn., *Tuterako alkatea.*

Yolanda González García and., *Vianako alkatea.*

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea.*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko irailaren hamaikan, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDAA

- 1^o.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2^o.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3^o.- Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.
- 4^o.- NUKFri atxikiak.
- 5^o.- Presidentearen informazioa.
- 6^o.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan.

Etxeberria jaunak eskatu du jaso dadila ezin etorriaren berri eman zuela.

Salbuespen horrekin,

ERABAKI DA:

2018ko ekainaren 5ean egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/06/08).** Aldeko txostena egin zitzaizen Erabilera publikoko igerilekuen osasun eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen Foru Dekretuari eta Toki Inbertsioen 2017-2019 Plana arautzen duen Foru Legeari.
- **Eskolatze Batzordea (2018/06/20).**
- **Klimaren eta energiaren aldeko itun bat Nafarroara egokitua prestatzeko alkateen lan taldea (2018/06/25).** Jakinarazitakoaren berri eman da.
- **Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua (2018/06/25).** Kontseilu horretako ordezkariak jakinarazi du NUKFri parte-hartze handiagoa eskatuko zaiola kontsumoari eta udalek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2018/06/25).** Zeuden erreklamazioak ebatzi ziren.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/06/25).** Aldeko txostena egin zitzaion Toki Administrazioa Berrantolatze Foru Legearen aurreproiektuari.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordea (2018/07/02).** Informazioa Kontratuei buruzko Foru Legearen onespenerari eta haren erregelamendu garapenerari buruz eta lizitazio elektronikoa ezartzeari buruz.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (INE) (2018/07/04).** Baja espedienteak ofizioz tramitatzea.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/07/20).** Aldeko txostena egin zitzaion Apirileko uholdeak ukitutako udalerrien zerrenda onetsi zuen Foru Agindua aldatzeko Foru Aginduaren proiektuari.
- **Nafarroako Boluntarioen Kontseilua (2018/09/06).**
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa (2018/09/07).** Prestakuntza Plana onetsi zen.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.

Proposatu da ordezkari hauek izendatzeko ondoko batzorde eta kontseiluetan:

- Itunen eta Diru-laguntzen Batzordea.
 - Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.
 - Ordezkoa, Fermín Cabasés Hita, NUKFko alor ekonomikoko teknikaria.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerrriak koordinatzeko Foruaren ordezkariak.
 - Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.
 - Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia.
 - Juan Jesús Echaide Baigorri, NUKFko komunikazio alorreko teknikaria.
 - Raquel Garbayo Berdonces, Cintruénigoko Udaleko alkatea eta NUKFko lehen presidenteordea.
 - Jesús María Rodríguez, Ribaforadako Udaleko alkatea eta NUKFko bigarren presidenteordea.
 - Javier Albizu Sanz, Artazuko Udaleko alkatea.
 - Kulturako teknikari bat, udaletako kultura teknikariek izendatua.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA. NUKFri atxikiak.

NUKFri atxikitzeko eskaera honen berri eman da:

- Etxarri Aranatz Aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

ERABAKI DA:

Aintzat hartzea entitate horren eskaera, zeina NUKFko kide bihurtzen baita bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

5. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Hiri eremuak berreskuratzeko laguntzen deialdia. Urriaren 15era arte egonen da zabalik.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin sinatutako hitzarmenaren ondoriozko jarduketak. Jakinarazi da bi aholkularitza tekniko kontratatze prozesuan gaudela, hitzarmen horretan aurreikusitakoa bete beharrez.
- Toki administrazioa. Jakinarazi da txostena eskatu zaiola Nafarroako Kontseiluari.
- Ekitaldi honetako Prestakuntza Plana onetsi dela. Jakinarazi da hemendik gutxira 156.290 euroko diru-laguntza onetsiko duen ebazpena onetsiko dela.
- Jardunaldi batzuk antolatuko direla azaroan administrazio elektronikoa buruz. Jakinarazi da atzeratu dela administrazio elektronikoa ezarpenak indarra hartzeko eguna.
- Lankidetzan arituko direla berriz Eskubide Sozialetako Departamentuarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin gizarte zerbitzuei lotuta dauden ikastaroak irakasteko.
- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatze Foru Legearen proiektua tramitatze onetsi dela.
- Zer lege testuri egiten zaion txostena Toki Araubideko Foru Batzordean:
 - Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen aurreproiektua.
 - Gizarte Zerbitzuen Zorroa aldatze proiektua.
 - Memoria Historikoko Tokiei buruzko Foru Legearen aurreproiektua.
- Toki Administrazio zuzendari nagusiak, gutun batean, jakinarazi duela Toki Inbertsioen Plana aplikatzeko dela.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA.- Galde-eskeak

Goñi andreak galdetu du zer jarduketa egiten duen Estatuak Elizak immatrikulatutako ondasunekin.

Jakinarazi da Estatuak inskribatutako ondasunen ziurtagiria eskatuko duela, baina bakarrik 1998tik aurrera egindakoena.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.